

PSE-EEko parlamentariak batera jokatu dute talderik ezean ere


Ajuria Eneko Ituna uda baino lehen bilduko dela dio Jauregik

Kongresuan eta Senatuan talde izaera hartuko ez duten arren, PSE-EEko parlamentariak lan elkartua egiteko asmoa dutela azaldu zuen Ramon Jauregik. Zereginak koordinatzeko bulego parlamentario bana jarriko dute hiriburuetan. Bestalde, Jauregik Ajuria Eneko mahaia uda aurretik bil litekeela ezagutarazi zuen.

INAKI URIARTE / BILBO

Madrilgo Parlamentuan talde parlamentariarik osatuko ez duten arren, PSE-EEko diputatuak eta senadoreak jokabide koordinatua izango dute Madril. Atzo alderdi honetako batzorde eragileak diputatuekin eta senadoreekin bildu zen Bilbon hautatu bakoitzak zein alor edo batzordetan hartuko duen parte aztertzeke.

«Eztabaidatuko dugu zeintzuk diren alorrik interesgarrienak bertoko parlamentari sozialistek betetzeko» esan zuen Ramon Jauregik. Atzoko bileran aztertu zuten, halaber, zeintzuek izan behar duten eginbiderik garrantzitsuenak «talde trinko gisa» funtzionatzeko. PSE-EEko parlamentariak ez dute talde parlamentarioaren izaera formala eskuratuko. «Gure helburua da talde trinko gisa lan egitea Euskal Autonomi Elkartearen ordezkari den» gaineratu zuen alderdiko idazkari nagusiak.



Ramon Jauregik azaldu zituen Madrilgo Kongresurako asmoak. SIMAL

HIRU BULEGO HIRIBURUETAN

Parlamentariak lana koordinatzeko PSE-EEko hiru bulego jarriko ditu EAEko hiriburuetan. Herrialde hauetako zeregina izango da —Jauregik azaldukoaren arabera— alkate, Batzar Nagusietako kide, parlamentari, Ajuria Eneko sailburu zein herritar soilek aurkeztutako kezka eta proposamenak. Parlamentuko PSOEko taldeari bideratzea.

Parlamentariak koordinatuko dituzten bulego horiek balio izango dute baita ere bide batez, PSE-EEko batzorde eragilearen eta parlamentarioen arteko lotura egiteko.

«Ez diogu entzungor egiten euskal herritarren aldetik jasotzen dugun mezuari, hots, PSE-EEri botoa ematean ez da azaldu bakarrik

Gonzalezek gobernuari eutsi diezaion gogoa, adierazi da halaber EAEko parlamentari sozialistek ordezkari dezaten» berretsi zuen Jauregik.

AJURIA ENEKO MAHAIA

Ajuria Eneko Mahaia uda aurretik bilduko dela baietsi zuen Ramon Jauregik. Hauteskundeak emaitzak eta ondorioz sortutako giroa aztertzeke balio dezakeen bilera prestatzeko Ardanaz mintzatua dela adierazi zuen.

Jauregi alde aurretik saiatu zen bileraren zioa ETAren atentatuak eragindakoa dela ezeztatzen. «Bilera ez da abaguneak ezarritako egoeren baitan izango» ziurtatu zuen. Jauregik ez zuen hitzik esan PSOE eta EA-Jren artean gobernu osatzeko egin diren bilerekin.

EAE-ANVk igandean egingo du aurtengo Albertia Eguna

DONOSTIA

Datorren igandean, ekainak 27, ospatuko du EAE (Eusko Abertzale Ekintza) alderdi abertzaleak aurtengo Albertia Eguna. Urtero bezala, Arabako Legutio eta Uribarri Ganboa herrien arteko Albertia mendian bilduko dira EA Eren jarraitzaileak, Gerra Zibilean hil ziren alderdikideak omentzeko.

Hain zuzen ere, 1936ko azaroan, euskal gobernuak Legutio herria hartzeko agindua eman zuen, hortik Gasteiza abiatzeko. Albertiako mendian izandako borroketan EAEko ehundaka gudari hil ziren, alderdi abertzaleak gogorarazi duenez.

Aurtengo edizioak 'Atzoko eta gaurko gudarien alde, Independentzia' lema izango du. EAEk azaldu duenez, «modu honetan gudari belau-

naldi ezberdinak, atzokoak eta gaurkoak, Iparraldeko eta Hegoaldekoak omendu nahi dira eta bide batez proiektu independentistan sakontzearen premia aldarrikatu».

Hala ere, aurtengo Albertia Egunean beste mezu bat zabaldu nahi du EAEk, «Ipar eta Hegoaldeko ezker abertzalearen batasunaren beharra», alegia. «Gaur egun ezker abertzalea dugu Euskal Herriko eskualde guztietan ordezkari orekatua duen euskal indar politiko bakarra», alderdi abertzalearen esanetan, eta «horregatik berebiziko ardura dauka benetan nazionala den proiektu bat eraikitzerakoan».

Bi ekitaldi politikok osatuko dute aurtengo egitaraua, bata eguerdian egingo da Albertiako tontorrean kokaturiko oroitarrian, eta bestea arratsaldeko 13.30etan beheko hariztietan.

Barreda: «Bizkaiko gehiengoan alternatiba bilakatu da PP»

BILBO

Espainiako Legebiltzararako hauteskundeak emaitzak aztertu ondoren, Partidu Popularra Bizkaiko instituzioetan gobernatzeko alternatiba bilakatu dela uste du Leopoldo Barredak. PPko buruzagiaren esanetan, «PP gehiengo politikoak aldatzeko ardatz bihurtu da Bizkaian». Herrialde honetan hirugarren alderdi bozkatuena izan zen PP ekainaren 6ko hauteskundeetan.

Bizkaiko emaitzei buruz osatu duen txostenean, PPK herrialdeko Diputazioan eta udaletxe garrantzitsuetan gobernatzen duen EAJ-PSOE koalizioaren alternatiba bulatzu behar duela iritziz dio Barredak. Gaur bilduko den Herrialdeko Zuzendaritza Batzordeak Barredaren txostena eta hauteskunde emaitzak aztertuko ditu eta gerorako helburuak zehaztuko ditu.

Bilbon lortutako emaitzak —botoen % 21— azpimarratu ditu Bizkaiko PPko presidentek txostenean. Bere ustez, «HBren botoak bikoizteak eta sozialistekiko 5.000 botoko aldea besterik ez egoteak erakusten du PP Bilboko gobernagarritasunerako etorkizuneko formulatan alternatiba izateko prest dagoela».

Ibar Ezkerrean, Basaurin eta Ermuan PPK izandako gorakada «esanguratsua» da Barredaren iritziz, eta aldi berean «erabakigarria hurrengo udal hauteskundeetan gehiengo politikoak aldatzeko».

Halaber, Balmaseda, Goredexola, Urduña eta Leioa bezalako herrietan PP «bigarren edo hirugarren indarra izatea Bizkaiko normalizazio politikoaren adierazgarri onena da», Barredak azaldu duenez. Inguru hauetan orain arte PP alderdi «testimoniala» izan da, Barredaren hitzetan.

Nafarroako Gobernua berreskuratzeko egoeran dagoela uste du PSN-PSOE

IRUÑEA

Bi urte barru egingo diren foru hauteskundeetan Nafarroako Gobernua berreskuratzeko aukera izango dutela uste dute bertako sozialistek, asteburuan Iruñean bildu zen PSN-PSOEko Erregio Batzordeak egindako analisiaren arabera.

Bilerak ekainaren 6ko emaitzak aztertzea zuen helburu eta Gabriel Urralburu PSN-PSOEko idazkari nagusia oso pozik agertu zen, UPNk boto gehiago eskuratu arren alde txikia ateratzen baitzuen alderdi sozialistari. Hori dela eta, PSN-PSOE UPNri aurrea har diezaiokela ziurtatu zuen Urralburuk. Bere irudiko, «sozialistek argi utzi dugu Nafarroako lidergoa berreskuratu eta Foru Komunitateko indar bozkatuena izan gaitzkeela. Eta hori da, hain zuzen, hurrengo hauteskundeetarako begira egin behar dugun apus-



Gabriel Urralburu.

JOXE

tua». Gogoratuko denez, Nafarroako Gobernua zazpi urtez bere esku eduki eta gero PSNk agintea galdu zuen 1991ko maiatzean.

Bestalde, partehartze handia sozialisten mesederako izan dela

nabarmendu zuen Urralburuk. Lehendakari ohiaren arabera, «azken kanpainan izugarritzko tentsio demokratikoa nabaritu dugu, aurrekoetan ez zegoena, eta agerian geratu da partehartzeak gure alde jokatzeko duela. Zenbat eta jende gehiago bozkatu, orduan eta emaitza hobekiago lortzen ditugu sozialistek».

Juan Cruz Alli Nafarroako Gobernua ere aipagai izan zuen Urralburuk, batipat haren esanak ukatzeko, sozialistek hitzarmenak hauteskunde arrazoiengatik komeni zaizkienean bakarrik egiten dituztela esan baitzuen UPNkoak kanpainan. Sozialista nafarren buruaren esanetan, berriaz, «hauteskundeak emaitzek frogatu dute Alliren iritzia faltsua zela. Sozialistek ez dugu sekula hitzarmenik egin ahultasunagatik. Edukiak begiratu izan ditugu beti eta horrela egingo dugu aurrerantzean ere».



UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

MAHAINGURUA:

'VIENAKO KONFERENTZIA: GIZA ESKUBIDEENTZAKO ERRONKA'

Partehartzaileak:

- Jose Antonio Corriente, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Nazioarteko Zuzenbidean katedraduna.
- Pedro Lozano Bartolozzi, Nafarroako Unibertsitateko Nazioarteko Harremanetako irakaslea.
- Javier Aisa, kazetari aditua nazioarteko gaietan.
- Maria Cañadas, Amnesty Internationaleko estatu idazkaritzako Koordinatzailea Espainian.

Tokia: Larraona ikastetxea.

Eguna eta ordua: Ekainaren 22an, asteartea, 19.30etan.

Antolatzaileak:

Nafarroako Unibertsitate Publikoa **Amnesty International**